

PERPAUS ELKARTUAK: Juntadura

1.-Osatu hurrengo perpaus elkartuak juntagailu egokiak erabiliz.

eta baina nahiz ala edo baizik

- Gaueko hamarrak dira, _____ oraindik ez dugu afaldu.
- Txangoa bost _____ sei egun barru egingo dugula esan digu andereñoak..
- Museoan ikusi dugun margolana ez zen itsusia, ederra _____.
- Nola joango zara Bartzelonara, autoz _____ hegazkinez?
- Nire lagun onenak, gehien maite ditudanak, Olatz _____ Markel dira.
- Euria egin _____ eguzkia egon, lagunak egunero elkartzen gara kalean.

2.-Irakurri hurrengo esaldiak eta esan bakunak edo elkartuak diren:

- Beñati astelehenean egingo diote ebakuntza.
- Bihar zinemara joango naiz Ainhoarekin, izan ere, oso lagun onak gara.
- Arratsaldean igerilekura joango naiz amarekin.
- Ibanek oso gustuko du irakurtzea, horregaitik dauzka hainbeste liburu.

3.-Lotu bi zutabeetako esaldiak eta behean osatu perpaus elkartuak juntagailu egokia erabiliz.

Oso gustuko dut jatea...
Goizetan, aitak esnatzen nau...
Entsegu asko egin ditugu...
Afaltzera iritsiko naiz...

...berandu.
...denetarik, gainera.
...bestela, ez nintzateke jaikiko.
...ondo aterako da emanaldia.

baina

izan ere

eta

beraz

Oso gustuko dut jatea...

Goizetan, aitak esnatzen nau...

Entsegu asko egin ditugu...

Afaltzera iritsiko naiz...